

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4381

EBAZPENA, 2025eko irailaren 4koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez ingurumen-inpaktuaren txostena egiten baita eta ingurumen-baimen bakarra ematen baitzaio Rubén Gómez Pérezek Lemoako udalerriko (Bizkaia) Zubieta auzoko 20. zenbakian sustatutako hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko instalazioari.

EGITEZKO AURREKARIAK

2021eko abenduaren 31n, abenduaren 9ko 10/2021 Legea argitaratu zen, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

2022ko apirilaren 9an, apirilaren 8ko 7/2022 Legea argitaratu zen, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzekoa.

2023ko abenduaren 28an, Rubén Gómez Pérezek ingurumen-baimen bakarraren eskaera osatu zuen, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin ondoren, Lemoako udalerriko Zubieta auzoko 20. zenbakian hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko instalazio-proiektu baterako, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoarekin bat etorritz. Eskaerarekin batera, dokumentazio tekniko hau aurkeztu zen:

- Proiektu teknikoa.
- Laburpen ez-teknikoa.
- Hirigintza-bateragarritasunari buruzko txostena, Lemoako Udalak 2023ko abuztuaren 31n emandakoa.

2024ko azaroaren 27an, Rubén Gómez Pérezek ingurumen-inpaktuaren txostena osatzeko dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

2025eko martxoaren 5ean, Lemoako udalerriko Zubieta auzoko 20. zenbakian hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko Rubén Gómez Pérezek eskatutako jarduera berriaren ingurumen-inpaktuari buruzko txostena egin zen. Txosten horretan ondorioztatzen denez, baldin eta ustiapen-faserako ingurumen-baimen bakarrean ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, ez da aurreikusten proiektua gauzatzeak ingurumenean eragin negatibo nabarmenik eragingo duenik. Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egitea. Era berean, txosten horretan ez da zehaztaperen gehigarri ezartzen proiektua onartu behar denerako, ingurumenean eragin nabarmenik izango ez duela bermatzeko.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2025eko martxoaren 19ko iragarkiaren bidez, Rubén Gómez Pérezek sustatutako proiektua 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea erabaki zen, epe horren barruan egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren iragarki taula elektronikoan argitaratu zen, 2025eko apirilaren 16an.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez zela aurkeztu egiaztatu zen.

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen testu bateginaren 37., 38. eta 39. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz, 2025eko apirilaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Lemoako Udalari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari.

2025eko apirilaren 29an jaso zen lehen aipatutako txostena, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eskatutakoa.

2025eko ekainaren 3an, aipatutako txostena igorri zen, Lemoako Udalari eskatuta. Txosten horrek, beste ohar batzuen artean, jakinarazi zuen sustatzaileak ez zuela izapidetu lurzorua kalitatearen adierazpenetik salbuesteko izapidea.

2025eko ekainaren 4an, ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 33. artikuluan 7. paragrafoa aplikatuz, baimen hori eman aurreko ikuskapena egin zen.

2025eko uztailaren 10ean, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza honek informazio osagarria eskatu zion Lemoako Udalari, kokalekuan egindako jarduera lurzoria kutsa dezakeen jardueratzat har daitekeen jakiteko.

2025eko abuztuaren 4an, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 40. artikuluan xedatutakoa betez, Rubén Gómez Pérezen esku utzi zen espedientea, espedientean bertan jasotzen den emaitzarekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko arau-esparrua xedatzea.

Legeak ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua arautzen du, ingurumena babesteko araudi sektorialean ezarritako prozedura administratiboak sinplifikatzeko eta bateratzeko premisapean. Hala, bertan xedatzen diren baldintzak eta eskakizunak jasotzen ditu, eta jarduerak garatzeko egon daitezkeen oztopo juridikoak eta administratiboak deuseztatzen ditu. Era horretan, Administrazioak esku hartzeko sistema berri bat ezartzen da legearen I.B eranskinean jasotako jarduera eta instalazioetarako, ingurumen-inpaktuei aurrea hartzeko neurri guztiak bilduko dituen administrazio-ebazpen bakarreko prozedura bakarra egon dadin.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 19. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, ingurumen-baimen bakarraren mende egongo da I.B eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten titulartasun publikoko edo pribatuko jarduera eta instalazioen ustiapena.

EAEko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 32. artikuluan xedatzen denari jarraikiz, baimen hori, nolahi ere, instalazioak eraiki, muntatu edo lekualdatu baino lehen eskuratu beharko da, eta instalazioetan egingo diren aldaketetara egokituko da.

Ingurumen-baimen bakarraren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratuko dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko isurpenen baimenak, eta dagozkien isurpenen mugako balioak ezarriko dira, aplikatu daitezkeen arloko arauak xedaturikoaren arabera.

Rubén Gómez Pérezen kasuan, baimen horiek, ingurumen-izaerako beste zehaztapen batzuen artean, hondakinak ekoizteari eta kudeatzeari, kolektorerara isurtzeari eta atmosferara isurtzeari buruzkoak dira. Gainera, egiaztatu da espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dutela, aginduzko txostenak igorritz.

Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskina aldatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren arabera, garatuko den instalazioan lehendik garatutako jarduera ez da iristen lurzorua kutsa dezakeen jardueratzat hartzeko gutxienez.

Instalazioak gehienez isuri ditzakeen substantzia kutsagarrien emisioko muga-balioak ezartzeko, eta, ingurumena ahalik eta gehien babeste aldera, instalazioa ustiatzeko beste baldintza batzuk ezartzeko, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira eskura diren teknika onenak nahiz sektoreko legeria aplikagarriak ezarritako neurriak eta baldintzak.

Orain arte azaldutakoaren arabera, espedientean jasotako informazioa aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu zen, Rubén Gómez Pérezek sustatutako jarduerari aplikatu beharreko baldintzak erantsita, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 15.8 artikuluan jasotako entzunaldi-izapidea alde batera utzi gabe.

Goian adierazitako izapideak aipatu dugunaren arabera amaituta, entzunaldi-izapidea bete da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 40. artikuluan jasotzen denari jarraikiz.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 43. artikulua, «Ingurumen-baimen bateratuaren eta ingurumen-baimen bakarraren edukia» izenekoak, honako hau ezartzen du bigarren apartatuan:

«2.– Ingurumen-baimen bakarrak honako hau jasoko du, gutxienez:

- a) Substantzia kutsakorretarako isurpenen mugako balioak eta, hala badagokio, lurzorua eta lurpeko urak babestea bermatzen duten preskripzioak.
- b) Instalazioak sortutako hondakinen kudeaketarako erabiliko diren prozedura eta metodoak, hondakinen kudeaketarako hierarkia kontuan izanda.
- c) Hala badagokio, erkidego arteko edo mugaz gaindiko distantzia luzeko edo mugaz gaindiko eremuetan ondorio negatiboa duen kutsadura minimizatzea bermatzen duten preskripzioak.
- d) Isurpen eta hondakinak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, neurketa-metodologia, maiztasuna eta neurketak ebaluatzeko prozedurak zehaztuta.
- e) Ingurumenari eragin diezaioketen eta normalak ez diren egoeretako ustiapen-baldintzei buruzko neurriak, hala nola abian jartzea eta geratzea, ihesak, funtzionamendu-akatsak eta aldi baterako geldialdiak.
- f) Instalazioaren itxiera egiteko baldintzak.
- g) Aplikatu daitezkeen legedi sektorialak ezarritako edozein neurri edo baldintza, edo Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoak arrazoituta emandakoak».

Hori horrela izanik, baimenaren edukian hainbat alderdi txertatu behar dira, hain zuzen ere gaur egun Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ezartzen duen ingurumen-baimen bakarraren edukian daudenak, instalazioa gaitzeko tituluak oinarritzen dituen araudian jasota ez dauden arren.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: Sailburuordetza honen 2025eko ekainaren 4ko Ebazpena; 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzekoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumen-inpaktuaren txostena egitea Lemoako udalerrian hondakin ez-arriskuak kudeatzeko Rubén Gómez Pérezek aurkeztutako proiekturako, ebazpen honen laugarren eta bosgarren ataletan ezarritako baldintzekin.

Bigarrena.– Zehaztea ezen, lehenengo puntuan ezarritako baldintzen arabera, eta betiere ebazpen honetan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, bai eta sustatzaileak planteatutakoak ere –aurrekoen aurkakoak ez diren heinean–, ez dela aurreikusten ingurumenean eragin negatibo adierazgarririk sortuko denik proiektua gauzatzearen ondorioz. Horrenbestez, ez da beharrezkoa ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egitea Rubén Gómez Pérezek Lemoako udal-mugartean sustatutako hondakin ez-arriskuak kudeatzeko proiektuari buruz.

Hirugarrena.– Rubén Gómez Pérezi (helbide soziala: Zubieta auzoa, 20, Lemoa; IFZ: ***7381**) ingurumen-baimen bakarra ematea Lemoako Zubieta auzoko 20. zenbakian hondakin ez-arriskuak kudeatzeko instalazio bat jartzeko, ebazpen honen eranskinetan ezarritako baldintzekin.

Laugarrena.– Ebazpen honen eranskinetan ezarritako baldintzak eta eskakizunak ezartzea, Lemoako udalerrian (Bizkaia) hondakin ez-arriskuak kudeatzeko Rubén Gómez Pérezek sustatutako jarduera ustiatzeko eta jarduera uzteko.

Baldintza orokorren eranskinean ezarritako betekizunak indarrean egongo dira soilik horretarako xedapen orokorrak onartzen ez diren bitartean.

Bosgarrena.– AAU01133 erregistro-kodea eta 4820221523 IIZ esleitzea Rubén Gómez Pérezek Zubieta auzoko 20. zenbakian ustiatutako instalazioari. Instalazio horren kokapena hau da: UTM (ETRS89) 30N, X: 517552, Y: 4.783.981.

Ingurumen-baimen bakar honi lotutako baimen- eta inskripzio-kodeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako aplikazio informatikoan agertzen direnak izango dira. Besteak beste, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroko baimen- eta inskripzio-kodeak erabili beharko dira hondakinak lekualdatzeko dokumentuak betetzeko.

Seigarrena.– Baimen honen eraginkortasuna eta baimendutako hondakin-kudeaketaren hasiera baldintzatuko ditu aurretiaz egiaztapenak. Ikuskatze-bisita egingo dute ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek, instalazioak aurkeztutako proiektuaren eta ebazpen honetan xedatutakoaren arabera eta Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 33.7 artikuluan xedatutakoari jarraikiz eraiki eta hornitu direla egiaztatzeko.

Zazpigarrena.– Hiru urtekoa da ingurumen baimen bakarra eman zaion jarduera hasteko epea.

Zortzigarrena.– Rubén Gómez Pérezi eskatzea honako alderdi hauei erantzun diezaiela, jarraian zehaztutako epeetan:

Instalazioaren eraikuntza amaituta, hasteko gaituta daudenean, hasi aurretik:

– Organo honi zein Udalari aurkeztu beharko dio titularraren erantzukizunpeko adierazpen bat; alegia, instalazioa onartutako proiektura egokitzen dela eta ezarri zaizkion baldintzak beteko dituela konpromisoa hartzen duela.

– Teknikari eskudun batek sinatutako ziurtagiria, baimenaren xede den jarduera motaren arabera, instalazioak onartutako proiektuarekin bat datozela eta ingurumen baimen bakarrean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duena.

– 277/2010 Dekretuaren (21/2019 Dekretuak aldatua) I. eranskinean jasotako jarduera bat bada, Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorreko inskripzio-ziurtagiria aurkeztu beharko du, edo, horren ordez, bertan inskribatzeko eskabidearen egiaztatzea. Bestela, betebeharrak aplikatu behar ez zaiola justifikatu beharko du.

– Industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua aplikatu behar bada, industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasunari buruzko eskumena duten organoek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Erregelamendu horren eraginpean ez badago, egiaztatu beharko du instalazioek suteen aurkako babesaren arloan ezarritako eskakizunak betetzen dituztela, horretarako egiaztatutako administrazioaren erakunde laguntzaile gisa enpresa instalatzaileak emandako ziurtagiria aurkeztuz, azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuak, suteen aurka babesteko instalazioen erregelamendua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera; halaber, aparatuen, ekipoen eta sistemen mantentze-lanak erregelamendu horretan xedatutakoaren arabera egiten direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Jakinarazpenak jasotako edo harekin batera aurkeztutako datuak, adierazpenak edo dokumentuak zehatzak ez badira, faltsututa badaude edo funtsezko zerbait agertzen ez bada, edo horrelakorik aurkezten ez bada, ezin izango da jarduera egiten jarraitu gertakari horien berri izaten den unetik, kasu horretan egon litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboek kalterik egin gabe.

Eskatutako dokumentazioa Nire Karpetatik aurkeztuko da, AAU01133_SOL_2021_001 espedientearen barruan. Espediente hori itxita badago, dokumentazioa aurkezteko espediente bat irekiko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako aplikazio informatikoaren bidez, eta adieraziko da aipatutako hasierako eskabide-espedienteari lotutako dokumentazioa dela.

Jarduera hasi eta 6 hilabeteko epean:

– Tratamendu-kontratuak, sortzen diren hondakin arriskugabeen eta arriskutsuen kudeatzaile baimendu batek emandakoak.

Bederatzigarrena.– Instalazioetan edozer aldaketa egiteko, eskaera egin beharko da, edo horren berri eman beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-informazioko sisteman, EAEko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 46. artikuluan (funtsezko aldaketak) edo 47. artikuluetan (funtsezkoa ez den aldaketa) ezarritakoaren ondorioetarako, artikuluetan kasuan-kasuan eskatzen den informazioa adierazita.

Sustatzaileak aldaketa bat funtsezkoa ez dela justifikatzeko dokumentazioaren kasuan, ingurumen-organismoak aztertu eta kalifikatu egingo du eskatutako aldaketa, eta funtsezkoa den edo ez ebaziko du.

Halaber, proiektua aldatzen den kasuetan, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Hamargarrena.– Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Rubén Gómez Pérezek aldaketa horien berri emango du.

Hamaikagarrena.– Ingurumen baimen bakarraren indarraldia mugagabea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoak aldizka berrikusi behar du, ingurumen baimenen aurrerapen klausularen arabera.

Hala ere, hondakinak tratatzeko jarduerari dagokionez ebazpen honetan jasotako baldintzen indarraldia 8 urtean behin berrituko da, automatikoki, agintari eskudunek aldeko ikuskapena egin ondoren.

Ingurumen baimen bakarraren berrikuspena ofizioz egingo da honako kasu hauetan:

- a) Instalazioak eragindako kutsadura dela-eta, finkatutako emisioen muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea komeni bada.
- b) Isurtzeak nabarmen murriztu daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan egindako aldaketa handien ondorioz gehiegizko kosturik izan gabe.
- c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela-eta beste teknika batzuk erabili beharra dagoenean.
- d) Teknika erabilgarri onenak erabiliz lortu litezkeenak baino baldintza osagarri zorrotzagoak aplikatzea beharrezkoa denean, ingurumen-kalitateko arauak beteko badira.
- e) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen denean.
- f) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.
- g) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.
- h) Aldaketa beharrezkoa denean, EAeko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 44. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz egindako azterketaren arabera.
- i) Isurtzeko baimena berrikusi eta ezeztatu ahal izango da, Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren 261. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arrazoiengatik.

Ingurumen-baimen bakarra berrikustek ez du kalte-ordainerako eskubiderik ekarriko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 44.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hamabigarrena.– Organo honi jakinarazi beharko zaio instalazioak aldi baterako edo behin betiko utzi direla edo itxi egin direla, hartutako edo hartuko diren neurriak eta denbora-sekuentzia zehaztuz, kutsadura-arrisku oro saihesteko.

Jarduera behin betiko amaitu dela ulertuko da, baldin eta urtebeteko epea igaro bada jarduera egin gabe, eta titularrak ez badio organo honi modu frogagarrian jakinarazten zein diren egoera horren arrazoiak, behar bezala justifikatuta.

Hamahirugarrena.– EAeko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 28.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Rubén Gómez Pérezek ebazpen honen xede den hondakin arriskugabeen kudeaketan gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Kasu horretan, hondakinak kudeatzeko jarduera bat izanik, titulartasuna hirugarren baten alde aldatzeko, aldez aurretik egiaztatu beharko da, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek egin beharreko ikuskapen-bisitaren bidez.

Hamalagarrena.– Ingurumen-baimen bakar honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun gisa tipifikatuta dago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 106. artikuluan arabera, eta aipatutako legearen 108. artikuluan jasotako zehapenak ezartzea ekar dezake.

Hamabosgarrena.– Baimen honek balioa galduko du honelakoren bat gertatuz gero:

- Epean ez bada egiaztatzen ebazpen honen zortzigarren apartatuan ezarritako baldintzak betetzen direla, non eta interesdunak ez duen behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.
- Ebazpen honen zazpigarren apartatuan xedatutako hiru urteko epean ez bada abiarazten baimendutako jarduera, non eta interesdunak ez duen epea luzatzeko eskatzen, behar bezala justifikatuta.
- Urtebeteko epean ez badu jarduera garatzen, eta titularraren komunikazio frogagarririk bidaltzen ez bazaio baimena eman duen Administrazioari, egoera horren arrazoiak behar bezala azaltzeko.

Hamaseigarrena.– Ebazpen honen edukiaren berri ematea Rubén Gómez Pérezi, Lemoako Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten organismoei eta gainerako interesdunei.

Hamazazpigarrena.– Ingurumen-inpaktuaren txosten hau eta ingurumen-baimen bakar hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara daitezela agintzea.

Hamazortzigarrena – Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu daiteke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 4a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSU BILBAO BEGOÑA.

ERANSKINA, USTIATZEKO ETA JARDUERA ETETEKO BALDINTZA PARTIKULARRENA (BP)

ATALA: JARDUERA-BALDINTZA PARTIKULARRAK

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera sartuta dago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.B eranskineko kategoria hauetan:

2.– «Hondakin ez-arriskutsuak tratatzeko baimena behar duten jarduerak edo instalazioak».

Enpresa Zubiateko industrialdean dago, 264,5 m²-ko azalera hartuta.

Rubén Gómez Pérezen instalazioetan egiten den jardueraren ardatza paper- eta kartoi-hondakinak, hainbat hondakin ez-arriskutsu eta tresna elektriko edo elektronikoen hondakinak (tinta-kartutxoak eta inprimatze-tonerrak) kudeatzea da.

Hondakin arriskugabeak kudeatzeko jarduera kudeaketa-eragiketa hauei dagokie:

– R1201 Tresna elektrikoak eta elektronikoak, paper- eta kartoi-hondakinak eta bestelako hondakin ez-arriskutsuak biltzea, hautatzea eta sailkatzea.

– R1203 Paper- eta kartoi-hondakinen tratamendu mekanikoa (birrintzea).

– R1302 Tresna elektrikoak eta elektronikoak, paperaren eta kartoiaren hondakinak eta bestelako hondakin ez-arriskutsuak tratamenduaren eremuan biltegitratzea.

Ekoizpen-prozesu hauek egiten dira: Hondakinak onartzea eta jasotzea, kudeatutako materialen hasierako biltegitratzea, materialen sailkapena eta tratamendua, eta hondakinen azken biltegitratzea eta igorpena.

Instalazioan erabiltzen diren lehengaiak eta gai osagarriak hauek dira: xurgatzaile pikortsuak, kartoizko kutxak, zurezko paletak eta enbalatzeko plastikoa.

Instalazioak energia elektrikoa kontsumitzen du ekoizpen-prozesuan erabilitako makineriarentzat, baita energia osagarria eta gasolioa ere, kudeatutako materialak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.

Instalazioetan kontsumitzen den ura udal-saretik hartzen da, instalazio sanitarioak erabiltzeko.

Atmosferarako isurketa-foku 1 dago, hondakinak biltegitratzeko, tratatzeko eta sailkatzeko prozesuetatik datorrena.

Sortutako efluenteak ur beltzez osatuta daude, eta ur horiek Zubiate industrialdeak duen eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen duen ur-kolektorerara isurtzen dira.

ATALA: OBRAK-BALDINTZA PARTIKULARRAK

JARDUERA EZARTZEKO EGOKITZAPEN-OBRETARAKO BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK

Obra egiteari dagokionez, ingurumen baimen bakarreko jarduerak ustiatzeko eta eteteko baldintza orokorrak bete beharko dira.

ATALA: HONDAKINEN KUDEAKETA-BALDINTZA PARTIKULARRAK

JARDUERAN HONDAKINAK KUDEATZEKO BALDINTZAK ETA ESKAKIZUNAK

Hondakinen kudeaketan, ingurumen-baimen bakarreko jarduerak ustiatzeko eta bertan behera uzteko baldintza orokorrak beteko dira (CG-Hondakinen Kudeaketa), bereziki tresna elektriko eta elektronikoen kudeaketari dagokionez.

- Hondakin onargarriak eta kudeaketa-eragiketa.

Europako Hondakinen Zerrendan ondorengo EHZ kodeak dituzten hondakinak kudeatu ahal izango ditu Rubén Gómez Pérezek. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen, zeinaren bidez aldatu egin baitzen 2000/532/EB Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EB Zuzentarauan xedatutakoa betez. Hortaz, hondakin hauek baino ez dira onartuko:

Hondakinak sailkatzea, birrintzea eta biltegitratzea:

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena	Kudeatu beharreko kopurua, guztira (tonak urteko)	Balorizazio-jarduera
020304	Kontsumitzeko edo lantzeko desegokiak diren materialak (kafe-kapsulak)	43,5	R1302 (43,5 t)
160214-62	Osagai arriskutsurik ez duten informatikako eta telekomunikazioetako tresna txikiak	5	R1201 (5 t)
			R1302 (5 t)
160216	Ekipamendu baztertuetatik kendutako osagaiak, 160215 02 15 kodean aipatutakoen desberdinak direnak (CDaK, disketeak, txartelak).	0,2	R1302 (0,2 t)
200101	Papera eta kartoia	128,15	R1201 (128,15 t)
			R1203 (128,15 t)
			R1302 (128,15 t)
200102	Beira	0,15	R1302 (0,15 t)
200111	Ehunkiak	0,2	R1302 (0,2 t)
200138	Zura, 200137 kodean zehaztutakoaz bestelakoa	0,3	R1302 (0,3 t)
200139	Plastikoak	5	R1302 (5 t)
200140	Metalak	2	R1302 (2 t)
200301	Hiri-hondakinen nahasteak	1	R1302 (1 t)

R1201 tratatzeko gehieneko gaitasuna (hondakinen sailkapena): 133,15 t/urte.

R1203 tratatzeko gehieneko gaitasuna (birrintzea): 128,15 t/urte.

R1302 tratatzeko gehieneko gaitasuna: 133,15 t/urte.

Hondakin ez-arriskutsuak une berean biltegitratzeko gehieneko edukiera: 305 t.

Jasotako hondakinek ezingo dute izan 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako arrisku-ezaugarrietako bat ere.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskineko R1201 eta R1203 kodeak dagozkio jarduera kudeatzeko eragiketari:

«R1201 Hondakinen sailkapena».

«R1203 Tratamendu mekanikoa (birrintzea, zatikatzea, ebakitzea, etab.)».

«R1302 Hondakinak biltegitratzea, biltegitratze-eremuan».

ATALA: AIREA-BP

AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• Jarduera.

Instalazioan, urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren –atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duenaren eta bera ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituenaren– katalogoan bildutako jarduera hauek egiten dira:

Jardueraren kodea	Taldea	Jarduera	Deskribapena
09 10 09 03	C	Hondakin arriskutsuen balorazio ez-energetikoa, <= 50 t/eguneko ahalmenarekin	Hondakinak sailkatu, biltegitratu eta tratatzea.
09 10 09 52	-	Hauts-itxurako hondakin metalikoak edo metalikoak ez diren hondakinak biltegitratzea eta manipulatzeko (nahastea, bereiztea, sailkatzea, garraiatzea edo tamainaz murriztea) material horiek maneiatzeko gaitasuna hau izanik: < 100 t/egun.	Hondakinak sailkatu, biltegitratu eta tratatzea.

Instalazioak ez du isuri atmosferikoen foku konfinatu finkorik. Isuriak lausoak dira.

• Fokuak.

Fokuaren kodea	Fokuaren izena	Jardueraren kodea	Isuri mota	Tratamendu-eta kontrol-sistema	Altuera (m)	Funtzionamendu-arabidea
4820221523-01	Hondakinak sailkatu, biltegitratu eta tratatzea.	09 10 09 03 09 10 09 52	Difusoa	-	-	Sistematikoa

ATALA: URA-BP

HONDAKIN-URAK ISURTZEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

ISURIEN SAILKAPENA, JATORRIA, INGURUNE HARTZAILEA ETA KOKAPENA

Rubén Gómez Pérezek isuriak egin ahal izango ditu ur sanitarioei eta industria-instalazioa ukitzen duten euri-ur garbiei lotuta.

Ez dago baimenduta ibilgu publikora hondakin-urik isurtzea. Era berean, ez da baimentzen saneamendu-sarera bestelako efluente edo hondakinik isurtzea, atal honetako taulan jasota ez badago, etxeko hondakin-urak edo ur beltzak izan ezik, horiek, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Isuriei buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, saneamendu-sare publikoan onartzen baitira.

Baimen horrek ez du babesten baldintza honetan esplizituki adierazi ez den substantziarik isurtzea, nahiz eta jardueraren ondorioz sortu, bereziki substantzia arriskutsutzat hartutakoak (Lurrazaleko uren egoeraren jarraipen- eta ebaluazio-irizpideak zein ingurumen-kalitateko arauak ezartzen dituen irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuaren IV. eta V. eranskinetan definitu dira).

Estatistika Institutu Nazionalak (INE) emandako datuetan oinarrituta kalkulatzen da isuria. Hortik ondorioztatzen da pertsonako batez besteko kontsumoa 133 litrokoa dela egunean. Kontuan hartuta instalazioak hasieran pertsona batek okupatzen duela urtean gutxi gorabehera 220 lanegunetan, ondorioztatzen da urtean isurketa-emaria 9,75 m³/urte ingurukoa izango dela.

Estalkiko zorrotzetatik datozen euri-urak horiek banatzen dituen sare batean biltzen dira, Kontzeju kaleak duen euri-uren sare orokorrera ematen duena. Isurketa hori euri-ur garbi gisa sailkatzen da, ez baitira kontaktuan jartzen inolako biltegiarekin edo kutsa ditzakeen inolako prozesurekin. Isurketa-emaria proportzionala da eremuko batez besteko plubiometriarekiko eta kokalekuaren azalerarekiko.

Ez da biltegiratuko ura edo lurzorua kutsa dezakeen edo saneamendu-sareen funtzionamenduari kalte egin diezaiokeen substantzia, produktu arriskutsu edo hondakin likidorik. Hondakinen eta produktu kimikoen biltegiratzeak diseinatu, eraiki, egokitu eta erabili behar dira biltegiratutako substantzia edo hondakin arriskutsuak ezin isurtzeko moduan eta, ihesa, zipriztina, tanta-jarioa edo isuria gertatuz gero, erraz eta azkar identifikatzeko, atxikitze eta ezabatze moduan.

Horrela, substantzia likido arriskutsuak biltegiratzen badira, horiek atxikipen-askak izango dituzte, bertan dagoen hondakina konfinatuta gera dadin, ontzia hautsiz gero. Nolanahi ere, atxikitze ahalmena honako balio hauetako handiena edo are handiagoa izango da: ontzi handienaren edukieraren % 100, biltegiratutako edukiera osoaren % 10.

- Arazteko eta husteko instalazioak.

Komunetan sortzen diren ur beltzak hodian eta kutxatilen sare baten bidez bilduko dira, Zubiare industrialdeko ur-kolektorerara isuri aurretik.

Hartutako zuzenketa-neurriak nahikoak ez direla egiaztatuz gero, Rubén Gómez Pérezek beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu arazteko instalazioetan, isuriak baimendutako ezaugarrietara egokitzeko, administrazioari jakinarazi ondoren, eta, hala badagokio, baimena aldatzeko eskatuko du.

Halaber, baimenaren titularrak kolektoreak eta arazketa-instalazioak funtzionamendu egoera egokian mantendu beharko ditu. Horrela, betebeharrak horietarako pertsona bat izendatu beharko du eta instalazioak zaindu eta funtzionatzeko arau zorrotzak eta beharrezko neurriak eman beharko dizkio.

- Isurketa-uraren kalitatea kontrolatzea.

Sustatzaileak aurkeztu duen dokumentazioaren arabera, atal honetako taulan adierazitako analisiak egingo dira.

Isurketa-puntua	Hondakin-uren mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Parametroak	Isurien muga-balioa	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
PV1	Higienikoak / sanitarioak	Instalazio sanitarioak	BBUP kolektorea	BBUPk ezarritakoak	BBUPk ezarritakoak	BBUPk ezarritakoa	BBUPk ezarritakoak

2025eko urriaren 17a, ostirala

Parametro orokorrak			
Parametroa	Sinboloa	Unitatea	Isurtzeko muga-balioak
Tenperatura	T.°	°C	45
pH-a	pH-a	pH unitateak	6-9,5
Solido esekiak guztira	GSE	mg/l	600
N – amoniakala	N-NH ₃	mgN/l	300
Olioa edo koipeak (animalia- edo landare-jatorrikoak)	O eta K	mg/l	300
Olio mineralak	O eta K	mg/l	50
Detergente anionikoak		mg/LAS/l	40
Guztizko zianuroak	CN-	mg/l	2
Sulfuroak	S=	mg/l	2
Kloruroak	Cl -	mg/l	(*)
Sulfatoak	SO ₄ =	mg/l	1500
Fluoruroak	F -	mg/l	50
Fenolak		mg/l	50
Artsenikoa	As	mg/l	1,5
Antimonioa	Sb	mg/l	0,5
Barioa	Ba	mg/l	20
Kadmioa	Cd	mg/l	1,5
Kromoa, guztira	Cr	mg/l	7,5
Kromoa, guztira (eguneko batezbestekoa)	Cr	mg/l	0,75
Kromo hexabalentea	Cr+6	mg/l	0,5
Kobrea	Cu	mg/l	7,5
Eztainua	Sn	mg/l	10
Burdina	Fe	mg/l	30
Merkurioa	Hg	µg/l	50
Nikela	Ni	mg/l	5
Zilarra	Ag	mg/l	1
Beruna	Pb	mg/l	3
Selenioa	Se	mg/l	5
Zinka	Zn	mg/l	15
Toxikotasuna <i>Vibrio fischeri</i> -ren biolumineszentzia inhibitzeagatik		Equitox./m ³	50

(*) Kloruroen kontzentrazioa mugatu egingo da, isuria hartzen duen hondakin-uren araztegiaren influenteak ez dezan gainditu 2.000 mg/l-ko kontzentrazioa saneamendu-sareko erabiltzaile guztientzat.

Konposatu organikoak		
Konposatu organikoa	Sinboloa	Muga
Konposatu organiko halogenatuak	AOX	Muga espezifiko bat ezarri ahal izango da industria-isuriak araztegien efluentearen kalitatean zer eragin duen edo tratamendu-prozesuan sortutako hondakinak (lohiak, errautsak, etab.) nola kudeatzen diren kontuan hartuta.
Alkil bentzeno sulfonato linealak	LAS	
Ftalatoak	DEHP	
Nonilfenolak eta nonilfenol etoxilatoak	NPE	
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak	PAH	
Poliklorobifeniloak	PCB	
Poliklorodibenzodioxinak eta poliklorodibenzofuranoak	PCDD/PCDF	

Metalen kontzentrazioak elementu horien «gutzizko» edukiari dagozkie.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ikuskapen- eta kontrol-lanak egingo ditu, dena proiektuan azaldutako baldintzekin bat datorrela egiaztatzeko.

Halakorik bada, kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «entitate laguntzaile» batek edo saneamendu-sarearen kudeaketaz arduratzen den organismoak (hala badagokio) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan.

Gainera, ingurune hartzailearen kalitate-arauak eta -helburuak bete behar dira. Bestela, titularrak tratamendu egokia egin beharko du, aipatutako kalitate-helburuak isuriaren ondorioz urratzen ez direla ziurtatzeko.

Isurien kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaizkio, urtero, ingurumena zaintzeko programaren esparruan.

- Instalazioak kontrolatzeko elementuak.

Kontrol-kutxatila bat jarriko da hondakin-ur mota baimendu bakoitzarentzako; kutxatila horiek isurketen lagin adierazgarriak lortzeko behar diren ezaugarriak izango dituzte. Kutxatilak zuzenean ikuskatu ahal izateko moduan kokatuko dira.

ATALA: HONDAKINEN EKOIZPENA-BALDINTZA PARTIKULARRAK

INSTALAZIOAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO
BALDINTZA PARTIKULARRAK

Hondakinak sortzeari buruz organo honek onesten dituen baldintza orokorrak bete beharko dira (Hondakinak Sortzea-BO).

Taula honetan ageri dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak (izartxoarekin eta EHZ kodearekin adierazita) eta ez-arriskutsuak:

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak. Arriskugarritasuna	Kudeatzeko bidea	Biltegitratze mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
150101	Paperezko eta kartoizko ontziak	-	R1201 R1301	Edukiontzia	Zerbitzu Orokorrak	50
150102	Plastikozko ontziak	-	R04	Edukiontzia	Zerbitzu Orokorrak	50
150103	Zurezko ontziak	-	R1201 R1301	Hormigoizko zola	Zerbitzu Orokorrak	50
150203	Xurgatzaileak (garbiketa-trapuak).	-	R1201 R1301	Kaxa	Zerbitzu Orokorrak	30
160214-62	Ekipamendu baztertuak, 16 02 09 - 16 02 13 bitarteko kodeetan zehaztuz bestelakoak (Inprimatzeko tonerra txiparekin)	-	R1201 R1301	Kaxa Edukiontzia Hormigoizko zola	Zerbitzu Orokorrak	5
					Hondakin sailkapena Hondakin bitarteko biltegitratzea	5000
160214-32	Ekipamendu baztertuak, 16 02 09 - 16 02 13 bitarteko kodeetan zehaztuz bestelakoak (LED lanparak)	-	R1201 R1301	Edukiontzia	Zerbitzu Orokorrak	5
200101	Papera eta kartoia	-	R1201 R1301	Edukiontzia	Zerbitzu Orokorrak	80
					Hondakin sailkapena Hondakin bitarteko biltegitratzea	128150
200301	Hiri-hondakinak	-	R1201 R1301	Edukiontzia	Zerbitzu Orokorrak	10
					Hondakin bitarteko biltegitratzea	1000
150202*	Xurgatzaileak, materialak eta trapuak (substantzia arriskutsuek kutsatutakoak)	HP5, HP14	D15	Kaxa	Zerbitzu Orokorrak	3
160213*	Ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak	HP5, HP14	R1201 R1301	Kaxa	Zerbitzu Orokorrak	5
160213*-51*	Osagai arriskutsuak eta pilak dituzten gailu txikiak	HP14, HP5	R1201 R1301	Kaxa	Zerbitzu Orokorrak	5
200121*-31*	Hodi fluoreszenteak, luminariak eta bonbillak	HP6	R1201 R1301	Edukiontzia	Zerbitzu Orokorrak	5

2025eko urriaren 17a, ostirala

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak. Arriskugarritasuna	Kudeatzeko bidea	Biltegitratze mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
200135*-61*	Baztertutako ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak, 21 01 21 eta 20 01 23 kodeetan zehaztutakoez bestelakoak eta osagai arriskutsuak dituztenak	HP14, HP5	R1201 R1301	Kaxa	Zerbitzu Orokorrak	5
020304	Kontsumitzeko edo lantzeko egokiak ez diren materialak	-	R1201 R1301	Kaxa Edukiontzia	Hondakinen bitarteko biltegitratzea	43500
160216	Baztertutako ekipamenduetatik kendutako osagaiak, 17 02 15 kodean zehaztuz bestelakoak (CDak, disketeak, txartelak)	-	R1201 R1301	Kaxa Edukiontzia	Hondakinen bitarteko biltegitratzea	200
200102	Beira	-	R1201 R1301	Edukiontzia	Hondakinen bitarteko biltegitratzea	150
200111	Ehunkiak	-	R1201 R1301	Big bag-ak Edukiontzia	Hondakinen bitarteko biltegitratzea	200
200138	20 01 37 kodean zehazten dena ez den egurra	-	R1201 R1301	Hormigoizko zola	Hondakinen bitarteko biltegitratzea	300
200139	Plastikoak	-	R1201 R1301	Edukiontzia	Hondakinen bitarteko biltegitratzea	5000
200140	Metalak	-	R1201 R1301	Edukiontzia	Hondakinen bitarteko biltegitratzea	2000

ATALA: LURZORUA-BP

LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

Lurzorua-Baldintza Orokorrak Atalean aipatutako araudian xedatutakoa betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako txostenaren arabera, sustatzaileak bertan jasotako neurriak hartu beharko ditu.

ATALA: ZARATA-BP

ZARATARI BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

- Zaratari buruzko baldintzak.

Behar diren neurriak hartuko dira instalazioak kanpoko ingurumenera zabaldu ez ditzan Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko F taulan muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak, betiere maila horiek aipatutako arauaren II. eranskinean jasotako prozeduren arabera ebaluatuta:

Eremu akustiko mota	Zarata-indizeak		
	LK,d (eguna)	LK,e (arratsaldea)	LK,n (gaua)
E) Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar dutenak.	50	50	40
A) Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak (1)	55	55	45
D) C apartatuan jasotakoaz bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	60	60	50
C) Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak	63	63	53
B) Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	65	65	55

(1) Muga-balio horiek aplikagarriak dira orobat ezein eremu akustikotan kokatuta ez dauden bizitegi-erabilerako eraikinetarako; balioak eraikinaren garaiera orotan leihodun fatxada guztietara iristen den soinuari dagozkie.

Kanpoko muga-balioak lurzoruaren mailatik 2 metroko altuerari eta leihodun fatxaden kanpoaldeko eraikuntzaren altuera guztiei dagozkie.

Lokal mugakideak egonez gero, instalazioak ezin izango die lokalei transmititu, haien erabileren arabera, aipatutako urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko G eta H tauletan ezarritakoak baino zarata-maila handiagoak.

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla ulertuko da baldin eta, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera, baldintza hauek betetzen badituzte ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean:

– Urteko batez besteko balioek ez dituzte gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

– Eguneroko balioetako batek ere ez ditu 3 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak

– Lkeq,Ti indizean neurtutako balioek ez dituzte 5 dB-tan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulan adierazitako balioak.

Adierazitako muga-balioak betetzen direla egiaztatzeko, jarduerari lotutako zarata-fokuen modelizazio bat aurkeztu beharko da instalazioa martxan jarri aurretik, behar bezala betetzen direla ziurtatzeko.

2025eko urriaren 17a, ostirala

Gainditzetik izanez gero, egon daitezkeen gainditzeak zuzentzeko zuzenketa-neurrien proposamena aurkeztu beharko da. Neurri horietako bakoitzaren jarduera-egutegia proposatu beharko da, egikaritzearen arduraduna izendatuta.

- Zarataren kontrola.

Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira bost urterik behin: Ld, Le, Ln, LAeq,Ti eta Laeq, 60 segundo.

ATALA: EZOHIKO EGOERAK-BP

PREBENTZIO-NEURRIEI ETA EZOHIKO EGOERETAN FUNTZIONATZEKO BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

- Jarduera etetea.

Ezohiko Egoerak-Baldintza Partikularrak atalean aipatzen den lurzoru kutsatuen gainean indarrean dagoen araudiaren arabera, 3831 da jarduera-kodea (materialak bereizi eta sailkatzea).

- Ezohiko funtzionamendua denean aplikatzeko prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Instalazioen prebentzioko mantentze-lanak.

Ezohiko Egoerak-BO ataleko izen bereko apartatua beteko da.

ERANSKINA, USTIATZEKO ETA JARDUERA ETETEKO BALDINTZA OROKORRENA (BO)

Sustatzaileak ustiatzeko eta jarduera uzteko bete beharko dituen baldintzak eta eskakizunak eranskin honetan eta ustiatzeko eta jarduera uzteko baldintza partikularren (BP) eranskinean jasotakoak izango dira.

ATALA: HONDAKINEN KUDEAKETA-BALDINTZA OROKORRAK**HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK**

– Administrazioarekiko harremanen arduraduna.

Administrazioarekiko harremanez arduratzen den arduradunari buruzko datu hauek jakinaraziko zaizkio organo honi: izen-abizenak, helbidea eta titulazioa.

Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz Ingurumen Sailburuordetzari eman zaizkion datuetan aldaketarik balego, instalazioaren titularrak aldaketa horien berri emango du.

– Erantzukizun zibileko aseguru.

Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da, eta alderdi hauek estaliko ditu: hirugarren pertsoneri edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Oro har, aseguruaren gutxieneko zenbatekoa seiehun mila (600.000) euro izango da.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu daiteke, aurreko 12 hilabeteetako Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera handituta.

– Onartzeko baldintzak eta kontrolak.

Tratamendurako onargarriak diren hondakinak hondakinen kudeaketaren inguruko baldintza partikularretan daude zehaztuta.

Lantegian tratatu beharrekotzat jotzen den hondakin-jatorri bakoitzeko, eragileak hondakin hori onartzeko eskabidea bidali beharko du Ingurumen Sailburuordetzara, horrek onets dezan, eta, behar izanez gero, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsiko da.

Hondakin jakin bat onargarria dela egiaztatu ondoren, jardueraren titularrak dokumentu horren titularrari onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio, onarpen horren baldintzak ezarrita. Horrez gain, hondakina onartzeko parametro mugatzaileak edo baldintzatzaileak jasoko dira, eta, hala badagokio, hondakin-partida bakoitza hartu aurretik aztertu beharreko parametroak.

Instalazioan inolaz ere ez dira onartuko baimendu ez diren hondakinak, edo hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, bestelako hondakin mota generikoren batekin nahastuta egoteagatik kutsatuta daudenak.

Hondakin bat baztertzten denean eta hondakin horren EHZ kodea hondakin baimenduena bada, tratamendu-kontratuan aurreikusitakoarekin bat etorri, organo honi jakinarazpen bat bidaliko zaio berehala (ippc@euskadi.eus helbide elektronikora), eta honako hauek jakinarazi beharko zaizkio:

- Bazterketaren arrazoia.

- Baztertutako hondakina lekualdatzeko operadoreak aukeratu duen ordezkio aukera kudeatzeko bidea.

Baldin eta onartu ez den partida beste autonomia-erkidego batetik badator, jatorrizko ingurumen-organoari ere jakinarazi egin beharko zaio.

Hondakin bat ezin bada onartu, zeinaren EHZ kodea hondakin baimenduen artean baitago, tratamendu negatiboaren kontratu bat egin beharko da, hondakin horiek kudeatzeko ezintasunaren arrazoiak azalduz.

Baimenaren titularrak industrian sortutako etxeko zaborrak edo merkataritza-hondakin ez-arriskutsuak kudeatu ahal izango ditu (20. taldeko EHZ kodea duten hondakinak), ebazpen honetan adierazi direnak, baldin eta dagozkion udal-ordenantzen arabera ez bada beharrezkoa hondakinok hondakinen kudeaketa-sistema publiko bati entregatzea.

– Hondakinen lekualdaketa.

Hondakinak lekualdatzeko, hondakinak lekualdatzen diren guztietan, bai instalaziotik kanpora, bai kanpotik instalaziora, behar bezala bete beharko da ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena.

Horrekin bat etorritik, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipen eta kontrola egiteko, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua xedatutakoaren arabera.

Unean uneko egoeraren ezaugarriei erreparatuta, ingurumen-organoak azalpenak eska ditzake, argitu diezaioten zergatik den ekonomikoki eta teknikoki ezinezkoa baimen honen barruko hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzea, eta hori egingo du autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioak aintzat hartuta eta Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planeko helburu estrategikoetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Jardueraren titularrak lekualdaketari buruzko informazioa jaso beharko du bere fitxategi kronologikoan, eta identifikazio-agiriaren kopia sinatua gorde beharko du hiru urtez; bertan, hondakinak entregatu eta onartu izana adieraziko da.

Aldez aurretik jakinarazi beharreko hondakinen lekualdaketak identifikatzeko dokumentuen kasuan, jardueraren titularrak hondakina jasotzen denetik gehienez 30 eguneko epea izango du identifikazio-agiri hori organo eskudunari bidaltzeko. Bidalketa hori gauzatzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren ingurumen-informazioa kudeatzeko sistema baliatuko du.

– Espainiaz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan, hondakinen lekualdaketari buruzkoan, ezarritakoa bete beharko da.

Horrez gain, aurreikusten bada zabortegian deuseztatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizatzeko eta deuseztatze-tratamendutik lortutako korrante nabarmenen bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

– Hondakinen sarrera-kontrola.

Instalaziora tratamendua egiteko iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, baimeneko baldintzen arabera instalazioan onargarriak direla bermatzeko.

Kontrol horretan, Ingurumen Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, muga-parametroak eta onartzeko baldintzak ezarriko dira. Egiaztatze hori sarrera-kontrolleko agiri batean erregistratuta geratuko da.

Tratamendu-kontratuak Espainiaren lurralde barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoa bete beharko du, eta, bestek beste, alderdi hauek jaso beharko ditu: hondakinei emango zaien tratamendua, hondakin horiek onartzeko baldintzak eta alderdiek dituzten betebeharrak hartzaileak hondakina baztertzeko badu.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Nolanahi ere, beste hondakin batzuk ere kudeatu nahi badira, beharrezkoa izango da Ingurumen Sailburuordetzaren alde aurreko onespena, ebazpen honetan xedatutakoari jarraikiz.

– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zola iragazgaitza izango dute, eta beharrezko maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, horiek kutxeta itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Zamalanak egitean, hondakin arriskutsuak kudeatuz gero, gai arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

c) Instalazioan egiten diren hondakinen zamalanek eta manipulazioek, baita ekipoen estankotasunak eta deskargatzeetan biltegitratutako xurgapena ere, emisio lausoak edo kontrolik gabek saihestu beharko dituzte, edo, saihestu ezin denean, ahalik eta gehien murriztu.

– Jasotako eta bereizitako hondakinak biltegitratzea.

a) Hondakinak biltegitratzeko gehieneko denbora sei hilabetekoa izango da hondakin arriskutsuentzat, urtebetekoa ezabatzeko diren hondakin ez-arriskutsuentzat, eta bi urtekoa balorizatzeke diren hondakin ez-arriskutsuentzat.

b) Tratatu beharreko hondakinak jaso, biltegitratu eta prozesatzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihes edo isuriei eusteko modukoak, eta biltegitratze-eremu bereziak izan beharko dituzte hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako. Era berean, instalazio bat egongo da ura biltzeko, estali gabeko eremuetan hondakin ez-arriskutsuak ukitzen dituzten euri-urak barne.

Instalazioak sare independenteak izango ditu euri-urak, ur sanitarioak eta hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko jarduera egiten den instalaziotik datozen urak bildu eta husteko, eta azken sare horrek laginak hartzeko kutxeta izan beharko du.

c) Hondakin arriskutsuak biltegitratzearen ondoriozko arriskuak murrizteko, bereizitako gune espezifikoko bat eduki beharko du jardueraren titularrak bere instalazioetan hondakin horiek biltegitratzeko. Gunea estalita egongo da, eta lurzoru estankoak edukiko ditu.

d) Onartutako hondakinak instalazioan biltegitratzeko, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak arrastatzea saihestu beharko da.

e) Hautsezko hondakinak eta soltean hartutakoak pabiloiaren barruan biltegitratuko dira tratatu arte, piletan eta/edo gelaxketan.

f) Haien egoera fisiko, likido edo oretsua dela-eta, edo haien inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sortu ditzaketen hondakin arriskutsuentzat, ontziak edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen isuriak kanpora isurtzea saihesteko. Biltzeko sistemak independenteak izango

dira, baldin eta, haien tipologia dela-eta, isurien ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete.

g) Hondakinak desagertu edo galduko balira, edo ihesen bat balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Udalean.

h) Instalazioaren geldialdi teknikoa egiten den kasu berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzionamendu baten ondoriozko beste egoera batzuetan, instalazioaren titularrak baimendutako hondakinen transferentzia-zentro gisa jardun ahal izango du, hondakinak kudeatzeko baimenduta dagoen beste instalazio batera eramateko.

i) Pilak edo bateriak kudeatzen badira, indartutako plastikozko edukiontzitan biltegitratuko dira.

– Kudeatzaile baimenduari entregatzea.

Bai transferentzia-zentro gisa jardunda jaso daitezkeen hondakinak, bai jardueraren garapenean bertan sortutako hondakin guztiak, horretarako baimendutako kudeatzaileari entregatu beharko zaizkio.

– Tratamendu-kontratuen indarraldiaren ziurtapena.

Aldian-aldian egiaztatu beharko zaio organo honi indarrean jarraitzen dutela instalazioko titularraren eta hondakinak kudeatzen dituzten hartzaileren artean ezarritako tratamendu-kontratuek. Hondakinak hartzen dituzten kudeatzaile horiek Espainiatik kanpo badaude, beharrezkoa izango da mugen arteko garraioak arautzen dituen Batasuneko arautegia betetzea.

– Kudeaketa-eragiketen hierarkia.

Edonola ere, birziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakin kudeatuak helburu horietara bideratuko dira, eta jardueraren titularrak hondakin horien hartzailerekin egindako tratamendu-kontratuetan jasoko da gertaera hori.

– Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa. Artxibo kronologikoa.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, jardueraren titularrak fitxategi kronologiko fisiko edo telematiko bat izan beharko du, eta bertan, esku hartutako jarduera guztiei buruzko datuak jasoko dira ordena kronologikoan. Aipatutako fitxategi kronologikoan sartuko da, orobat, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa, eta bertan, gutxienez, datu hauek jasoko dira:

a) Onartutako hondakinen jatorria (jatorria eta prozesua, enpresa sortzailea eta enpresa garraiolaria).

b) Onartutako hondakinen kantitateak, izaera, osaera eta identifikazio-kodea.

c) Hondakin-partida bakoitzaren onarpen- eta harrera-data, eta, hala dagokionean, ematean sortutako kontrol- eta jarraipen-agiria.

d) Onartu ez diren hondakin-partidei buruzko datuen erregistroa (jatorria, kopurua, enpresa garraiolaria, ez onartzeko arrazoiak eta ordezeko helmuga).

e) Biltegitratutako hondakinak instalazioko zer tokitan dauden.

f) Hondakinak aldeztu aurretik egokitzeko edo multzokatzeko eragiketak, hondakin-partiden datak, parametroak eta haien buruzko datuak, hondakinen ondorengo helmuga eta partida bakoitzari emandako EHZ kodea.

g) Instalazioko kudeaketa-lanen datak edo azken kudeatzaile baimenduari bidalketa egin zaionekoa, kudeatzaile horren identifikazio-datuak, eta, hala badagokio, sortutako identifikazio-agiriarenak.

h) Izaera eta frakzioa (pisan), bereizitako hondakin arriskutsuen mota bakoitzeko.

i) Prozesuan sortutako hondakinen edo zatikien kantitateak, izaera, osaera, identifikazio-kodea eta helmuga.

j) Onartu ez diren hondakinak: Kantitatea, izaera, jatorria, hondakina ez onartzeko arrazoia eta onartu ez den hondakinaren azken helmuga.

Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak kudeatzen badira, artxibo kronologikoa 110/2015 Errege Dekretuaren XI. eranskinaren arabera izango da, eta datu hauek jasoko ditu, gutxienez, ordena kronologikoan:

A) Sarrera.

a) GEEHa noiz iritsi den.

b) TEEHa entregatu duen erabiltzailearen edo erakundearen identifikazioa (kasuan-kasuan aplikatutakoaren arabera): TEEHen partikular/banatzaile/garbigune/ekoizle-sare/ekoizle profesionala.

c) Izena, helbidea, autonomia-erkidegoa, IFZ, ingurumeneko identifikazio-zenbakia, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroko inskripzio-zenbakia.

d) Garraiolaria (halakorik badago): Izena, IFZ, helbidea, autonomia-erkidegoa eta kudeatzailearen kodea.

e) Entregatutako gailua zer motatakoa eta markatakoa den.

f) Pisu-unitatea.

g) EHZ-GEEH kodea.

h) Erabilera (etxekoa/profesionala).

i) Serie-zenbakia (ahal den guztietan).

j) TEEHaren etiketaren edo instalazioan TEEHak gordetzen diren edukiontzien erreferentzia-zenbakia.

k) Oharrak eta gorabeherak; adibidez, funtzionamendu-egoerari buruzkoak, berriz erabiltzeko aukerari buruzkoak, beterik dagoen, eta abar.

Gailu txikiei eta lanparei dagokienez, sarrerako informazio indibidual hori ez da beharrezkoa izango, eta, horren orde, frakzio horretarako berariazko edukiontzien identifikazioa adierazi beharko da.

B) GEEHak edukiontzi edo karioletan ateratzea.

a) Edukiontzia edo kaiola instalaziotik irteteko data.

b) EHZ-GEEH kodea.

c) Edukiontzi-erreferentzia, GEEHen irteera-pisua, edukiontzia.

d) Garraiolariaren identifikazioa.

e) Helmuga (hondakinak kudeatzeko instalazioaren datuak).

1.– Helbidea eta autonomia-erkidegoa.

2.– Mota: Berrerabiltzeko prestatzeko zentroa (BPZ), kargaren transferentzia- edo bilketa-zentroa, tratamendu espezifikorako instalazioa.

3.– IIZ.

4.– IFZ.

5.– Ekoizpen- eta kudeaketa-erregistroko inskripzio-zenbakia.

f) Bildu eta kudeatzen duen erakundeari buruzko informazioa (esleipen-bulegoa edo biltzeko instalazioak kontratatutako kudeatzailea).

g) Esleipen-bulegoaren bilketaren erreferentzia-zenbakia.

h) Biltzeko instalaziotik bilketa finantzatzen duen erantzukizun hedatuko sistema.

Artxibo kronologiko horrek, deskontaminaziora eramaten diren GEEHen kasuan, informazio hau ere jasoko du:

a) Tratamendu-lanak, datak, kontrol-parametroak eta prozesuari buruzko datuak.

b) Aldi baterako biltegiatutako hondakin arriskutsuak, gailu elektriko edo elektroniko deskontaminatuetakoak: mota, identifikazio-kodeak, kopuruak eta ontziratze-datak, instalazioko kokapena.

c) Kudeatzaile baimenduari entregatutako hondakin arriskutsuak: mota, identifikazio-kodea, kopuruak, entrega-datak, kudeatzailearen identifikazio-datuak eta entrega bakoitza egiaztatzen duen identifikazio-dokumentuaren zenbakia.

d) Berrerabiltzeko merkaturatutako gailu elektriko eta elektronikoen piezak eta osagai desmuntatuak: kopuruak pisuaren arabera, motak.

e) Hondakin arriskugabeen kudeatzaile baimenduari birziklatzeko entregatutako gailu elektriko eta elektronikoen piezak eta osagaiak: mota, identifikazio-kodea, kopuruak, entrega-datak eta hartu dituen kudeatzailearen identifikazio-datuak, kasu bakoitzean.

Fitxategi hori gutxienez 3 urtez gorde beharko da, eta urtero bidali beharko zaio organo honi, dagokion urteko Ingurumena Zaintzeko Programaren barruan.

Erabiltzen ez diren ibilgailuak kudeatzen badira, artxiboan datu hauek agertuko dira:

Sarrerak:

- Ibilgailuaren identifikazioa, mota (LER VEH), pisua, ibilgailua jaso den data eta lotutako suntsiketa-ziurtagiriaren erregistro-zenbakia.

- ibilgailuaren egoera (istripua izan duen, osorik dagoen, partzialki desmuntatua, etab.).

- ibilgailu bakoitza deskontaminatzeko tratamenduaren data.

Sortutako hondakinak eta piezak:

- Deskontaminatutako ibilgailuetatik sortutako hondakin arriskutsuak: Deskribapena, EHZ kodea, prozesu sortzailea, uneko urtean sortutako guztizko kantitate metatua, biltegitratutako kantitatea, ontziratzen hasteko data eta instalazioan duen kokapena.
- Deskontaminatutako eta desmuntatutako ibilgailuetatik sortutako hondakin ez-arriskutsuak: Deskribapena, EHZ kodea, uneko urtean sortutako guztizko kantitate metatua, biltegitratutako kantitatea, ontziratzen hasteko data eta instalazioan duen kokapena.
- Jardueraren garapenean sortutako beste hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsu batzuk: deskribapena, EHZ kodea, urte horretan sortutako guztizko kantitate metatua, biltegitratutako kantitatea, ontziratzen hasteko data eta instalazioan duten kokapena (xurgatzaileak, koipe-bereizgailuen hondakinak, etab.).
- Ibilgailuetatik desmuntatutako piezak eta osagaiak, berrerabiltzeko prestatuta daudenak eta biltegitra eramaten direnak: pieza mota (deskribapena eta jatorrizko ibilgailu mota), kantitatea, pisua.

Irteerak:

- Hondakinak tratatzeko instalazioetan entregatutako hondakin arriskutsuak: Deskribapena, EHZ kodea, bidalketa bakoitzaren datuak: hartzailea, lekualdaketaren data, entregatutako kopurua, hondakinak jasotzen duen tratamendu-eragiketa (R/D), lekualdaketaren identifikazio-agiriaren zenbakia.
- Autokontsumorako erabiltzen diren kopuruak: Deskribapena, kopuruak.
- Hondakinak tratatzeko instalazioetan entregatutako hondakin ez-arriskutsuak, deskontaminatutako ibilgailuak barne: Deskribapena, EHZ kodea, bidalketa bakoitzaren datuak: hartzailea, lekualdaketaren data, entregatutako kopurua, hondakinak jasotzen duen tratamendu-eragiketa (R/D), entrega bakoitza bermatzen duen identifikazio-agiriaren zenbakia, albarana edo antzekoa.
- Berrerabiltzeko prestatutako ibilgailuen piezak eta osagai desmuntatuak: pieza-mota (deskribapena eta jatorrizko ibilgailu-mota), kopurua, pisua, xedea: salmenta nazionala, esportazio-salmenta eta, pneumatikoen kasuan, salmenta partikularrei/profesionalei. Artxibo hori agintari eskudunek eskuratzeko moduan egon beharko da, ikuskatu eta kontrolatzeko.

Era berean, artxiboan erregistratu eta gorde beharko dira, 3 urtez gutxienez, deskontaminatu beharreko ibilgailu bakoitzarentzat Ingurumen Sailburuordetzaren sistema informatikoaren bidez egindako suntsiketa-ziurtagiriak, bai eta ibilgailuetatik bereizitako edo jardueran sortutako hondakinen tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak ere, hondakin horiek kudeatzeko bidea egiaztatzen dutenak.

– Artxibo kronologikoaren laburpen-memoria.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluekin bat etorritik, urte bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da fitxategi kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Laburpen-memoriak ekitaldi bakoitzaren amaieran behin-behinean biltegitratutako hondakinen eta hondakin kopuruaren zerrenda ere jasoko du, instalazioan tratatzeko onartuta baina oraindik tratatzeke dauden hondakinena, bai eta sortutako hondakinena ere.

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak kudeatzeko jarduerarako, urteko memoriak otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren XII. eranskineko gutxieneko edukia izan beharko du.

Bai artxibo kronologikoa bai bildutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko urteko memoria gaitutako plataforma elektronikoan txertatuko dira, 110/2015 Errege Dekretuaren 55. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Plataforma elektronikoa hori erabil daiteke fitxategi kronologikoari eta urteko memoriaren lanketari dagozkion betebeharrak betetzeko.

Erabiltzen ez diren ibilgailuak kudeatzen badira, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeke prest uzteko helburuak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak jasoko dira memoria horretan. Tratutako ibilgailuen kopurua, mota, pisua eta berrerabiltzeko prestatutako piezen kantitateak, birziklatutako hondakinen kantitateak eta balorizatutako hondakinen kantitateak adierazi beharko dira. Memoriak, halaber, informazioa jaso beharko du baimendutako kudeatzaile bati behar bezala tratatzeko entregatutako pneumatiko kopuruari eta berrerabiltzeko prestatutakoei eta bigarren eskuko pneumatiko gisa merkaturatutakoei buruz, adieraziz zeinentzat ez duen urteko ziurtagiririk. Era berean, erabiltzen ez diren pneumatikoen kopuru bera tratatzeko baimendutako kudeatzaile bati bigarren eskuko pneumatiko horiek erosi dizkioten profesionalek egindako entregan dokumentazioaren kopia ere jaso beharko du. Atal honetan aipatutako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, Sailburuordetza honetako sistema informatikoan gaitutako prozedura telematikoen bidez.

Aurreko apartatuetan adierazitako agiriak organo honetara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

– Larrialdietan berehala jarduteko bitartekoak.

Larrialdirik gertatuz gero, berehala esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kopuru nahikoan: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia; kaltetutako inguruneak isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak; eta norbera babesteko ekipamenduak.

– Suteen aurkako segurtasun-neurriak.

Suteak itzaltzeko, industria-establezimenduetan suteen aurkako segurtasunaren arloan eskumena duten organismoek eskatutako ekipoak eta agenteak instalatuko dira. Hondakin erregaiak (plastikoak, pneumatiko erabiliak, etab.) biltegitratzeko berariazko eremuan sute-arriskuak prebenitzeko neurri zorrotzak ezarriko dira, esaterako, gehiegizko metatzeak saihestuko dira.

Hondakinak transferitzeko zentro gisa bete beharreko baldintzak.

• Zamalanetarako segurtasun-neurriak: Titularrak beti hartu eta zaindu behar ditu baimendutako hondakinak zamatzeke eta deskargatzeko lanei dagozkien segurtasun-neurriak.

• Ontziratzea eta etiketatzea: Halaber, hondakin arriskutsuak ontziratzekei eta etiketatzekei buruzko jarraibideak nahitaez bete beharko dira, arloko araudian ezarritako moduan.

• Analisisirako baliabide teknikoak: Hondakin arriskutsuak jasotzeko aukera egiaztatu asmoz, instalazioaren titularrak hondakinen onarpen-parametroak egiaztatzea ahalbidetuko duten baliabide teknikoek eta giza baliabideez hornitu beharko du.

• Biltegitratzeko lurzoru iragazgaitza, zamalanetarako eremuan: Zamalanetan ibilgailuak aparkatzeko eremuak iragazgaitutako lurzorua izango du, eta aldi baterakoak biltzeko sistema izango du.

• PKB araudia eta suteei buruzkoa betetzea: Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzeko instalazioek, segurtasun-distantziei eta babes-neurriei dagokienez, bete beharko dituzte produktu kimikoak biltegitratzekei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizunak, bai eta suteen

aurkako prebentzioari eta babesari buruzko arauak ere. Hori egiaztatzeko, erakunde eskudunek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira organo honetan. Hori egin ezean, egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da erakunde eskudunaren aurrean.

- Aska independenteak: Isuriak eragin ditzaketen hondakin arriskutsuak aska independenteetan biltegitratuko dira, eta, betiere, aska bakoitzean, haien artean bateragarriak diren hondakinak dituzten ontziak bilduko dira. Jarioak biltzeko kubetek zoru eta horma iragazgaitzak izango dituzte, erabat estankoak.

- Proiektuko segurtasun-neurriak: Era berean, nahitaez bete beharko dira proiektuan adierazitako segurtasun-neurri eta zehaztapenak, baldin eta lehenago aipatutakoen aurkakoak ez badira.

- Ur-sare independenteak: Instalazioak sare independenteak izango ditu euri-urak eta ur sanitarioak jaso eta husteko. Aldi baterako biltegitratze-jardueran sortutako beste edozein efluente bereizita jaso eta behar bezala kudeatu beharko da, bere izaeraren arabera, eta ez da baimenduko sarera isurtzea, salbu eta efluente horiek erakunde eskudunak emandako isurketa-baimenean sartu direla egiaztatzen bada. Baimen hori egiaztatzen duen dokumentuaren kopia bat bidali beharko zaio organo honi.

- Larrialdietarako materialak: Larrialdietan berehala jarduteko behar diren material guztiak eduki beharko dira, sor daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak barne, bai eta norbera babesteko ekipamenduak ere. Bateriak kudeatuz gero, behar izanez gero berriro ontziratzeko erreserbako edukiontzia edukiko dira horiek manipulatzeko, baita norbera babesteko beharrezko ekipamenduak ere.

- Prebentziorako mantentze-lanaren eskuliburua: Instalazioari dagokion prebentziorako mantentze-lanaren eskuliburua eduki beharko da, instalazioen egoera bermatzeko, batez ere istripuz isuri edo ihesak daudenean ingurumena kutsatzea ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta instalazioetako segurtasun-neurriei dagokienez.

- Ikuskapen eta kontroleko programa: Aurreko atalean adierazitako eskuliburuak ikuskapen- eta kontrol-programa bat izan beharko du, hondakinak eta horien ontziak biltegitratzeko eremuen ikuskapen bisualak jasoko dituena, bai eta lurzorua kutsa dezakeen edozein egoera prebenitzeko egokitutako jotzen diren neurri guztiak ere.

ATALA: AIREA-BALDINTZA OROKORRAK

AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA OROKORRAK

– Baldintza orokorrak.

Instalazioa ustiatzean, ez dira gaitzako ingurumen-baimen bateratu honetan ezarritako gehieneko emisioen muga-balioak, eta ingurumen-organo honek ezarritako baldintza teknikoak bete beharko dira.

Era berean, prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor horretatik salbuetsi ahal izango dira teknikoki eta/edo ekonomikoki atzemanezinak diren konfinatu gabeko emisioak, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Isuriak kontrolatu eta sakabanatzearen inguruko xedapenak betetzeko behar diren elementuak operatibo izan beharko dira jarduera osoki edo partzialki hasteko unean eta jarduera funtzionatzen ari denean.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko isurketarik ez egiteko eta haien efluenteek giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko

instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan alegia. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

Instalazioaren titularrek bete beharko dituzte atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan adierazitako betebeharrak.

Fokuen sekzioak, neurketa-guneek, laginketa-puntuak, neurketa-portuek, irisgarritasun-baldintzek, segurtasun-neurriek eta zerbitzuek bete beharko dute atmosferaren arloan eskumenak dituen Sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako erakunde batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango dio ingurumen-organoari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Instalazioak Airea-Baldintza Partikularrak atalean jasotako fokua ditu, Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean adierazitako atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan sartuta daudenak.

Foku ez-sistematikoetako bat batez beste urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzen hasten bada, ordubete baino gehiagoz aldi bakoitzean, edo, maiztasuna edozein dela ere, isurien iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, isuri-foku sistematiko gisa erregularizatu beharko da.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko gisa funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Hurrengo urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek ez badute bere horretan jarraitzen. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

– Emisioen muga-balioak.

Lantegia ustiatzean, bermatu beharko da atmosferara egingo diren isuriek ez dituztela gaindituko Airea-Baldintza Partikularrak ataleko taulan jasotako isurien muga-balioak.

Isurtze lausoko fokuen kasuan, urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuan partikulentzat ezarritako muga-balioak ez gainditzeko moduan garatuko da jarduera.

– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondar-gasak husteko tximiniak Airea-Baldintza Partikularrak atalean ezarritako kotatik gora helduko dira. Fokuen sekzioak, neurketa-guneek, laginketa-puntuak, neurketa-portuek, irisgarritasun-baldintzek, segurtasun-neurriek eta zerbitzuek bete beharko dute atmosferaren arloan eskumenak dituen Sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa.

Isuri lausoak minimizatzeke, ihesak antzemateko ekipamenduak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

– Emisio lausoak.

Isurtze lausoko fokua dituzten instalazio berrietan, hasierako ILE txostenarekin batera, isuri atmosferikoak minimizatzeke jarduketa-prozedura bat aurkeztu beharko da.

Airea-Baldintza Partikularrak atalean isuri lausoko fokiak identifikatu badira, neurri hauek hartu beharko dira:

- Zamalanak. Garraioa:

- * Zamalanak olagarroarekin.

- Materialen zamalanak ahalik eta gehien murriztea.

- Materiala deskargatzeko unean erorketa-altuera ahalik eta gehien murriztea.

- Materiala hartu ostean zalia edo gakoak erabat ixtea.

- Deskargatu ostean, zalia pilatan denbora nahikoan uztea.

- * Pala mekanikoarekin kargatzea/deskargatzea.

- Materialen zamalanak ahalik eta gehien murriztea.

- Materiala deskargatzeko unean erorketa-altuera ahalik eta gehien murriztea.

- Kamioiak kargatzean, pala kamioiaren ohean ahalik eta gehien sartzea.

- * Bestetik, materiala garraiatuko duten kamioiak olanekin edo hautsa harrotzea saihesten duten bestelako elementuekin estali beharko dira.

- * Era berean, murriztu egingo da ibilgailuen abiadura, eta zolatuta egon beharko dute ibilgailuen zirkulazio-eremuek.

- Bideak, lurzorua eta makineria garbitzea:

- Bideak, lurzorua eta makineria aldian-aldian garbituko dira.

- Bideak eta lurzoruak garbitzeko, ekortzeko eta baldekatzeko makinak erabiliko dira, eta baldekatzeko ekipoa eta ekortzekoa konbinatuko dira, hautsa ez dadin barreiatu.

- Pilaketa:

- * Helburu horrekin prestatutako eremuetara mugatzen da pilaketa.

- * Metaketa egitean, metaren luzetarako ardatza haize nagusiarekiko paraleloan geratuko da.

- * Materiala biltzeko eremuetan aspertsoreak egongo dira, ureztatzeko. Sustatzaileak, hasierako ILE txostenarekin batera, bere instalazioan instalatutako aspertsoreen banaketa aurkeztu beharko du.

- * Ahalik eta pilaketa gutxien egin behar da.

- * Pilaketak egiteko zabalgunearen barruan makineriaren maniobra-eremuak ureztatuko dira aldizka, bai eta pilaketak egiteko zabalgunera sartzeko pistak ere.

- * Ez dira prestatu behar, ezta desegin ere, eguraldi txarra dagoenean.

- Material agregatuak prozesatzea:

- * Material agregatuak hartzeko eta deskargatzeko eremuek aspertsoreak izango dituzte, ureztatzeko. Sustatzaileak, hasierako ILE txostenarekin batera, bere instalazioan instalatutako aspertsoreen banaketa aurkeztu beharko du.

- * Deskarga-toberak alde guztietatik itxita egongo dira, kamioien deskarga-aldetik izan ezik.

- * Uhal garraiatzaileak karenatuta egongo dira luzera osoan.

- * Trommelek ur-disfusoreak izango dituzte sarreran eta irteeran.

- * Eraikuntza- eta eraipen-hondakinak eskuz bereizteko gelek ur-difusore bat izango dute tratamendu-instalazioaren irteeran.

- * Birringailuek urez erregadiatzeko mekanismo propio bat izango dute, aho birrintzailearen gainean eta garraiatzailearen elikadura- eta deskarga-puntuen gainean muntatutako tobera atomizatzaileen bidez.

- * Errotek berezko ur-mekanismo bat izango dute barra lainoztatzaileen bidez, pita multilainoztatzaileak izango dituztenak errotaren elikagailuan eta deskargan, bai eta deskarga-garraiatzailearen buruan ere.

Emisio lausoak minimizatze aldera, emisioak biltzeko sistemen mantentze-lan egokia egingo da; horrez gain, besteak beste, instalazioa garbituko da, kanpoko ateak eta pabiloiarenak itxiko dira, eta ingurumen-praktika egokiak eta teknika erabilgarri onenak aplikatuko dira.

Administrazioak foku lausoen irteerak egokitu daitezzen eskatu ahal izango du, emisio bideratuen baimenean sartzeko, horiei dagozkien muga eta neurketa-aldizkakotasunekin.

– Atmosferara egindako isuriak kontrolatzea.

Instalazioak isuriak kontrolatu beharko ditu, baimeneko Aire-Baldintza Partikularrak ataleko taulan ezarritakoari jarraikiz.

Aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako entitate (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako hauei dagokienez: neurketaren helburua eta plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

Isuri lausoen kanpo-kontrolak ingurumen-kontrolako erakundeek egingo dituzte, IT-03 «Atmosferara egiten diren partikulen isuri lausoen kontrola» jarraibide teknikoan adierazitakoaren arabera.

Barne-kontrolak edo autokontrolak baliabide propioekin egin ahal izango dira, baldin eta baliabide teknikoak eta langile kualifikatuak badaude, eta hori ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko da.

Lortutako emaitzen erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, betiere xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz: atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua, eta atmosfera kutsa dezaketen jarduerak egiten dituzten instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egon beharko da.

ATALA: URA-BO

HONDAKIN-URAK ISURTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Jardueraren isurketak eta horien ezaugarriak Ura-Baldintza Partikularrak atalean jasotzen dira.

– Gehieneko isurketa-emariak eta -bolumenak.

Gehieneko isurketa-emariak eta -bolumenak Ura-Baldintza Partikularrak atalean jasotzen dira.

– Emisioen muga-balioak.

Emisioen muga-balioak Ura-Baldintza Partikularrak atalean jasotzen dira.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili, isuriaren muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Bestela, titularrak tratamendu egokia egin beharko du, isuriaren ondorioz aipatutako arauak eta kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek ez du onartzen «Ura-Baldintza Partikularrak» atalean berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzia batzuk isurtzea, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren substantzia arriskutsuak. Errege-dekretu horren bidez, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari publiko hidraulikoari buruzko araudia onartzen duena.

– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-urak arazketa-instalazioek edo zuzenketa-neurriek URA-BP atalean zehaztutako jarduketak barne hartuko dituzte funtsean.

Hartutako zuzenketa-neurriak nahikoak ez direla egiaztatuz gero, sustatzaileak beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu arazteko instalazioetan, isurketak baimendutako ezaugarrietara egokitzeko; aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta, behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Kontrol-kutxatila bat egongo da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako, eta isurketen lagin adierazgarriak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarriak izan beharko ditu. Kutxatilak Administrazioak zuzenean ikuskatu ahal izateko moduan kokatuko dira.

– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

Ura-Baldintza Partikularrak atalean zehaztutako analitikak egingo dira.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, Ingurumena Zaintzeko Programa-BO atalean adierazitakoaren arabera.

ATALA: HONDAKINAK SORTZEA-BALDINTZA OROKORRAK

INSTALAZIOAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO
BALDINTZA OROKORRAK

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatuko dira Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmuga egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinak kudeatzeari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak deuseztatzeke, ezinbestekoa izango da alde aurretik behar bezala justifikatzea ez dela bideragarria haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik. Birsortzea edo berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeke beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, hondakin horiek instalazio horietara bidali beharko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken destinoa zabortegei baimenduan ezabatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarritu egingo dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ingurumen-baimen bakar honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Sortutako hondakinen kopurua handitzeak aurretik ezarritako biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izan behar dute. Haien egoera fisiko, likido edo oretsua dela-eta, edo haien inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakin arriskutsuentzat ontziak edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen isuriak kanpora isurtzea saihesteko. Hauts-itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarri dagokienez, bat etorritik betiere honako hauetan ezarritako irizpideekin: Europako Hondakin Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita Hondakinen Zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen (EB) 1357/2014 Erregelamendua, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira ingurumen-baimen bakarrean jasota eta izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertu edo galdu egingo balira, edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa ingurumen-organon eta instalazioa kokatuta dagoen udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritz Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31 artikuluan ezarritako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinarazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Hondakinak Espainiatik kanpora esportatzen diren kasuetan, bete beharko da Hondakinak lekualdatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa.

– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak Hondakinen Ekoizpena-Baldintza Partikularrak ataleko taulan jasotakoak dira.

Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da, eta horiei buruzko informazioa baimena izapidetzerakoan jasotzen da. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, oinarriko beste batzuk, euren izaera dela-eta, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Horiek definitzen dituzte hondakinaren osagai arriskutsuak eta mota. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeko eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskuratzea edo balorizatzea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan uzte- edo ezabatze-kodeak balioztatzea eskatzen bada.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela-eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete.

Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta bilgarriek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak jariatuta edo lurrunduta gal ez daitezzen.

Hondakin arriskutsuak gehienez 6 hilabetez eduki behar dira biltegitratuta.

Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko eskakizuna izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Organoari bidaliko zaio hondakina lehenengoz atera aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako

tratamendua egokia den aztertzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ingurumen-baimen bakar honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Sustatzaileak artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraibideak betetzen dituela horrelako gaiak garraiatzeko ezarritako eskakizunak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Sortutako olio erabilia industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sustatzaileak.

Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak–. Pilen eta metagailuen hondakinek, halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute. Kudeatzaile baimendu batekin sinatutako tratamendu-kontratua izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbuetsita egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegiturretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak entrega horiek egin direla egiaztatzen badu. Toki-entitateei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde beharko dira gutxienez.

Ekoizleak poliklorobifeniloak (PCB) dituzten edo izan ditzaketen aparatuak dauzkan bitartean, haiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten aparatuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen horretan, eta hori aldatu zuen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

Ekoizleak ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1005/2009 (EE) Erregelamenduan zehaztutako gai erabiliak baldin baditu, berreskuratu egingo dira alderdiek onetsitako bitarteko teknikoek bidez deuseztatzeko, edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz, edota birziklatzeko edo birsortzeko xedez, tresnak berrikusi eta mantentzeko eragiketetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

Sustatzaileak urtero adierazi beharko dio ingurumen-organismoari sortutako hondakin arriskutsuen jatorria zein den, zein kantitate sortu den, zer erabilera emango zaion eta adierazpenaren xede den ekitaldiaren amaieran zeintzuk dauden aldi baterako biltegitratuta. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa bidaliko du, urtean urtekoa.

Hondakin arriskutsuen ekoizle gisa, artxibo elektronikoko batean, honako datu hauek jaso beharko dira, ordena kronologikoan: sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraibidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak lege horren XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

Urtean 10 tonatik gora hondakin arriskutsuren hasierako ekoizlea bada, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluari jarraituz, sustatzaileak minimizazio-plan bat izan beharko du, eta, planaren barruan, sortutako hondakin arriskutsuen kopurua eta haien arriskugarritasuna murrizteko hartuko dituen neurriak jaso beharko ditu. Plana agintaritza eskudunen eskura egongo da eta, lau urtean behin, ekoizleak emaitzen berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari. Aurreko betebeharretik salbuetsita egongo da EMAS ziurtagiria badu, edo mota horretako hondakinak minimizatzeko neurriak barne hartzen dituen beste sistema baliokideren bat; horretarako, dagokion informazioa ingurumen-adierazpen baliozkotuan jaso beharko da.

Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarritzko printzipioetako bat betetzeko, alegia, mota horretako ahalik eta hondakin gutxien sortzeko, sustatzaileak hondakin arriskutsuen sorrera minimizatzeko plan bat egin eta aurkeztu beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, lau urtetik behin, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikulua ezartzen duen moduan, betiere sustatzaileak urtean 10t hondakin arriskutsu baino gutxiago sortzen ez baditu, edo EMAS ziurtagiri bat edo horren baliokide bat ez badu.

Sustatzailea merkataritza- edo industria-ontzien azken edukitzailea bada, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 38. eta 44. artikuluen arabera:

- Gordetzeko, itzultzeko eta bihurtzeko sistemari lotutako merkataritza- eta industria-bilgarriak: bilgarriak banatzaileei itzuli beharko zaizkie, edo, bestela, industria-bilgarrien hondakinak ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemari entregatu beharko zaizkie, kontserbazio-, hustuketa- eta garbiketa-baldintza egokietan, edo ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemek definitutako beste edozeinetan.

- Gordetzeko, itzultzeko eta bihurtzeko sistemen mende ez dauden industria-bilgarriak:

- * Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemek ezarritako bilketa-puntuetan uztea, haiek definitutako baldintzen arabera; edo

- * Kudeatzaile baimenduei entregatzea, ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemekin adostuta hala aurreikusten denean, abenduaren 27ko 12055/2022 Errege Dekretuaren 36.6 eta 42.5 artikuluen arabera.

Azken edukitzaileek, hala badagokio, informazioa eman beharko diete sistema indibidualei edo kolektiboari industria-ontzien bilgarrien kudeaketari buruz.

Amiantoa duten hondakinak daudela hautemanaz gero, sustatzaileak 108/1991 Errege Dekretuaren (amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzei buruzkoa) 3. artikuluan ezarrita dauden eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuaren arabera egingo dira, zeinaren bidez ezartzen baitira amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak.

– Instalazioan sortutako hondakin arriskutsuak egoki kudeatzearen kalitatea kontrolatzea.

Apartatu honetan adierazitako agiriak ingurumen-organora bidaliko dira, transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabilia.

- Kudeatzaile baimenduak hondakinak onartzearen konpromiso dokumentala.
- Identifikazio-agiria.
- Hondakinen urteko aitortpena.
- Laburpen-memoria.
- Artxibo kronologikoa.
- Hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plana.

– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskugabeak «Hondakinen Ekoizpena-Baldintza Partikularrak» ataleko taulan jasotakoak dira.

Erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak, materialen arabera, egoki bereizita entregatu beharko zaizkio agente ekonomiko (hornitzaile) bati, berrerabiliak izan daitezten, ontzi erabilien kasuan; edota berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati, ontzi-hondakinen kasuan.

Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegitatuta eduki; hondakinen azken helburua balorizazioa denean, berriz, 2 urtez gorde ahal izango dira.

Oro har, kanpora eraman aurretik, hondakin guztiek izan beharko dute sinatuta tratamendu-kontratu bat kudeatzaile baimendu batekin, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitzen egiteko beharko da proposatutako kudeaketa-modua ingurumen-baimen bakar honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Sustatzaileak erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo haien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak badira, hiru urtean gutxienez.

Hondakina zaborte gira eramateko bada, hondakin ez-arriskutsua lekualdatu aurretik, jarraipen- eta kontrol-dokumentua bete beharko da. Horretarako, bete egin beharko da Hondakinak zaborte gietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatzen dena.

Hori hala izanik, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, ekonomia zirkularra bultzatzeko eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluari jarraikiz.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak arau horren XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

Urtean 10 tona hondakin arriskugabe baino gehiago sortuz gero, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan arabera, Indumetal Recycling SAK formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du, non jasoko baitira, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko,

birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraioidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira. Artxibo kronologikoa hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanetarako eskatutako egiaztatze dokumentaleko informazioa oinarri hartuta egingo da. Fitxategi kronologiko hori gutxienez bost urtez gorde beharko da.

– Instalazioan sortutako hondakin arriskugabeak egoki kudeatzearen kalitatea kontrolatzea.

Apartatu honetan adierazitako agiriak ingurumen-organora bidaliko dira, transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabilia.

- Kudeatzaile baimenduarekin sinatutako tratamendu-kontratua.

- Jarraipen- eta kontrol-dokumentua, hondakina zabortegira eramatekoa bada.

- Hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko aurkeztu beharreko identifikazio-dokumentua, hondakinok balorizatzeko nahiz ezabatzeko.

- Laburpen-memoria.

– Ontziak merkaturatzea.

Merkataritzako eta industriako ontziak eta bilgarriak dituzten produktuak merkaturatzen dituen sustatzaileak ekoizlearen erantzukizun hedatuko banakako sistema bat ezarri beharko du nahitaez, banaka edo taldean, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 19. eta 20. artikuluen arabera.

Sustatzaileak produktuen ekoizleen erregistroan inskribatu beharko du, eta urtero bidali beharko du ontzien arloko informazioa, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 15. eta 16. artikuluen arabera.

Baldin eta sustatzaileak urte natural batean zehar merkaturatzen dituen produktu ontziratuak direla-eta, eta, hala badagokio, ontzi industrialen edo komertzialen ondorioz, ontzi-hondakinak sortu baditzaie kopuru hauetatik gora:

- 250 tona, soilik beira bada.

- 50 tona, soilik altzairua bada.

- 30 tona, soilik aluminioa bada.

- 20 tona, soilik plastikoa bada.

- 20 tona, soilik zura bada.

- 15 tona, soilik kartoia edo material konposatuak badira.

- 300 tona, material bat baino gehiago badira eta haietako bakoitzak ez baditu, banaka, aurreko kantitateak gainditzen.

Prebentziorako Enpresa Plan bat prestatu beharko du. Planak bost urteko indarraldia izango du. Plana amaitutakoan, onartutako Prebentziorako Enpresa Planaren kontrol- eta jarraipen-txosten bat egingo du sustatzaileak, eta txosten hori Ingurumen Organoari igorriko zaio, ingurumena zaintzeko programaren gainerako dokumentazioarekin batera.

ATALA: LURZORUA-BO

LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZAK OROKORRAK

Baldin eta, Ezohiko Egoerak-BP atalean identifikatutako jardueran eta sektoreko araudian oinarrituta, instalazioa behartuta badago lurzoruaren egoerari buruzko txosten bat aurkeztera, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzekoa) ezarritako betebeharrak betez eta txosten horretan jasotako gomendioen arabera, sustatzaileak lurzoria babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu, bai eta Lurzoria-BP atalean espezifikatutakoak ere.

Era berean, Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuarekin bat etorritik, baimenaren titular den enpresak jarduera kokatuta dagoen lurzoruaren egoerari buruzko txostenak bidaliko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari, dekretu honen 19. artikuluan eta VII. eranskinean zehaztutako maiztasunarekin eta irismenarekin, aurretiazko txostena aurkezteko ezarritako bide beretik.

Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluan 1.c) apartatuan jasotzen denari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurrak, obra-hondakinak, etab.) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m³tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa egin bitartean gainditze hori antzemango balitz, nahitaezkoa izango da lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta oneratzeko akreditatutako entitate batek egindako indusketa selektiborako plan bat aurkeztea. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onetsi beharko du, gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m³-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen eta jarduketa burutuko duen kontratadunaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzatia eta jarduketa-eremua zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jardueraren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, zolatak barne.

– Ingurumen-jarraipeneko lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikuluko honetan aipatutako kasuetan erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m³-tik gorakoa bada, entitate egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, 49/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan («Induskatu behar diren lurzoruetan in situ egindako laginketa») biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarritzko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarbuo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, entitate egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta analisisa, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko entitateak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta entitate horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen.

h) Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako A-EBA ebaluazioko balio-adierazleak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurak lur garbitzat hartuko dira, eta beraz, onartu egingo dira baimendutako edozein betelantarako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalarekin pareka daitekeen substratu harritsu meteorizatua bada, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo aldetaren bat egitea aurreikusi bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoruaren arloko adierazpen bat lortu beharko du egin nahi diren aldetak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, bat etorritz, betiere, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e) apartatuarekin.

ATALA: ZARATA-BO

ZARATARI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

Zarata-Baldintza Partikularrak atalean ezarritako indize akustikoak ez gainditzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira.

Zamalanetako jarduerak eta materialak kamioietan garraiatzeko jarduerak egitean sortzen den zarata ezingo da izan sentikortasun akustiko handieneko eremuetako ingurumen-maila baino askoz handiagoa.

– Zarataren kontrola.

Neurketa bidezko ebaluazio guztiak Administrazioaren II. mailako lankidetzaren erakunde (ALE) batek egin beharko ditu, bat etorritu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio-eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organismoak zainduko du ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela.

Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak ingurumen-organismoek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

ATALA: INGURUMENA ZAINTEZKO PROGRAMA-BO

INGURUMENA ZAINTEZKO PROGRAMARI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

– Emaizak kontrolatzea eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ezarritako entrega-prozedura telematikoari jarraikiz:

Hala, aipatutako programak zehaztutako aldi egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko da berehalako jakinarazpena Ingurumen Sailburuordetzara, gertatutakoaren berri izan ondoren, prebentzio-neurriei eta egoera normalez bestelakoetan funtzionatzeko baldintzei buruzko baldintza partikularren apartatuetan ezarritakoari jarraikiz.

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Bidalketa hori urtean behin egingo da, betiere martxoaren 31 baino lehen.

ATALA: EZOHIKO EGOERAK-BO

PREBENTZIO-NEURRIEI ETA OHIKO EGOEREZ BESTELAKOETAN FUNTZIONATZEKO
BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

– Instalazioa geldiarazteko eta martxan jartzeko eragiketak eta mantentze-lanen eragiketa programatuak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren emisioen eta hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzeko ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, «Hondakinen Ekoizpena-Baldintza Partikularrak» eta «Hondakinen Ekoizpena-Baldintza Orokorrak» ataletan ezarritakoarekin bat etorriz.

– Jarduera etetea.

Jarduerari arau hauek aplikatu behar zaizkio: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea eta Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzeko urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Horrenbestez, sustatzaileak jarduera-etete horren berri eman beharko dio ingurumen-organuari, bi hilabeteko epea igaro baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta beranduenez ere noiz hasiko den lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Arauari dagokion jarduera-kodea «Ezohiko Funtzionamendua-Baldintza Partikularrak» atalean ezartzen da.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, sustatzaileak instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, Hondakinen Ekoizpena-Baldintza Partikularrak eta Hondakinen Ekoizpena-Baldintza Orokorrak ataletan ezarritakoari jarraikiz.

– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako etetea jakinaraziz gero, sustatzaileak, aldi baterako uztearen jakinarazpenarekin batera, agiri bat bidali beharko du lantegia jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen bateratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, jarduerari berrekin baino lehen, instalazioen funtzionamendu egokia ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina duen isurketa edo emisio oro saihesteko.

– Ezohiko funtzionamendua denean aplikatzeko neurriak eta jardunak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean, ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendurako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, apartatu hauetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

- Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuz isurketak edo ihesak daudenean, kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isuriak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa bat jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, tangen barnealdearen begizko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara eginiko emisioak eta isuriak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Ez dago baimenduta hondakin-urak «bypass» bidez isurtzea arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan derrigorrez bypass bidez isurketak egin behar badira, titularrak ingurumen-organo honi jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. *Bypass* horretan aurreikusi gabeko isurketaren bat gertatzen bada, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua akreditatu beharko du, dagokion txostena ingurumen-organo honi bidalita (apartatu honetako «Gorabeheraren bat gertatuz gero, agintariei jakinaraztea» puntuan adierazitakoari jarraituz).

Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gertaerena ere.

Besteak beste, erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, eta, orokorrean, fabrian sortutako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzorua eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzatien gainazal guztiak iragazgaitzuko dira.

Hauts-itxurako produktuak biltegitratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak, ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoa den material guztia edukiko da, hau da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipa bereziak.

Tangen hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura edukiko dute. Bertan, lantegiaren eraginkortasunari eragin diezaioketen isuriak lantegira joatea saihestu beharko da.

- Gorabeheren bat izanez gero agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak berehala eman beharko dio gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri ingurumen-organoari (zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren), horretarako ezarritako helbide elektronikoko hau baliatuz: ippc@euskadi.eus. Jakinarazpenean alde hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- * Gorabehera mota.
- * Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- * Berehala aplikatu diren zuzenketa- edo euste-neurriak.

* Sortutako ondorioak.

* Epe laburrera aurreikusitako jarduketak, halakorik badago.

Gorabehera edo arazo larriren bat izanez gero, eta, betiebre istripuz izandako emisio edo isuriren bat egonez gero, berehala jakinarazi beharko zaie SOS Deiak zerbitzuari eta instalazioa non dagoen kontuan hartuta dagokion udalari Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehatz-mehatz jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio ingurumen-organoari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

* Gorabehera mota.

* Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.

* Gorabeheraren iraupena.

* Istripuz isurketarik gertatuz gero, emaria eta isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisisa barne.

* Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.

* Eragindako kalteen balioespena.

* Hartutako zuzenketa-neurriak.

* Ezohiko gertaera edo anomalia berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.

* Prebentzio-neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke, titularrak berehala etengo du isuri hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilaren eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoek, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

Larrialdi-egoeretan, babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.